

BISATUA EGIAZTATZEKO PROZEDURA

BISATUAREN HILABETEA: IFZ edo IFKren azken digituaren arabera

Titularra zaren edo ordezkari zaren garraio-baimen(ar)en bisatua ofizioz egiteko (Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko 16/1987 Legearen 51. artikulua), eta Lurreko Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko abenduaren 3ko ebazpenarekin bat (garraiorako eta garraioaren jardura laguntzaile eta osagarrietarako baimenen bisatuen egutegia ezartzen da ebazpen horren bidez), jakinarazpen hau bidaltzen da bisatuaren prozedura hasitakotzat jotzeko. (BOE 2018/12/14)

Zure baimen(ar)en bisatuaren izapidetzea berresteko, ekintza hauek egin behar dituzu:

1. Tasa ordaintzea

Bizkaiko garraioen atarira sartu behar duzu, helbide hau erabilita: <http://apps.bizkaia.net/TTWB/> eta hau aukeratu behar duzu: «*Garraio PUBLIKO baimenei lotuta dauden tramite guztiak (txartelak)*»

Eremuak bete ondoren, dagokion tasa ordaindu behar duzu eta ordainketaren frogagiria gorde; izan ere, gero erantsi egin beharko duzu Bizkaiko garraioen atarian zein bisatuaren espedientean.

Behin tasa ordaintzeko prozesua amaituta, klik egin ahal izango duzu Sustapen Ministerioaren egoitza elektronikora eramango zaituen esteka batean, zure bisatua berresteko (ofiziozko bisatuaren izapidetzea berresteko formularioa).

Bisatua berretsi ondoren, eman edo ukatu egin beharko duzu beste administrazioei zure datuei buruzko kontsulta egiteko baimena (2. puntua), eta berretsi edo aldatu egin beharko dituzu bisatua berresteko formularioan agertzen diren datuak (3. puntua).

2. Kontsulta telematikoak egiteko baimena

Baimena ematen baduzu (BAI aukeratuta), Bizkaiko Foru Aldundiak beste erregistro publiko batzuetan dauden datuak kontsultatu ahal izango ditu telematikoki, eta hala zuk ez duzu hainbat dokumentu aurkeztu behar izango.

Helbide honetan kontsultatu ahal duzu zer dokumentazio gehiago erantsi behar diozun espedienteari: http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=4528

Baimenik ematen ez baduzu (EZ aukeratuta), indarrean dagoen legerian ezarritako dokumentazio guztia aurkeztu beharko duzu baimenak mantentzeko baldintzak betetzen dituzula justifikatu ahal izateko.

3. Datuak berrestea

Bisatuaren hilabetearen lehen egunetik azken egunera (IFZren azken digituaren arabera), ofiziozko bisatuaren izapidetzea berresteko formulariora sartu beharko duzu; tasa ordaindu ondorengo estekan klik eginda sar zaitzke formulariora, edo zuzenean Sustapen Ministerioaren egoitza elektronikoa, «Lurreko garraio» arloan, «Barne-garraiorako baimenen kudeaketa»rako aplikazio espezifiko erabilita. Helbide honetan dago aplikazio hori:

<https://sede.fomento.gob.es/TRANSPORTE-NACIONAL>

Formulario horretan berretsi beharko duzu zuzenak diren edo aldatu behar diren titular edo ordezkari zaren garraio-baimenak, Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroan jasota daudenak.

4. Espedientea izapidetzea eta administrazioarekin harremanetan jartzea

Aurkeztutako informazioa osatu edo zuzendu behar baduzu, jakinarazpen bat jasoko duzu Sarbide Orokorreko puntuaren bitartez - Herritarren karpetan; helbide honetan:

<https://sede.administracion.gob.es/carpeta/clave.htm>

Informazioa osatu edo zuzentzeko eskaneatutako dokumentazioa eransteko, «Barne-garraiorako baimenen kudeaketa» aplikazio espezifiko erabili beharko duzu, hau da, baimenen bisatua berresteko erabilitako berbera:

<https://sede.fomento.gob.es/TRANSPORTE-NACIONAL>

Bisatuaren ebazpena, era berean, Sarbide Orokorreko Puntuaren bitartez- Herritarren karpetan - jakinaraziko da. Horrez gainera, SMS bat bidaliko dizugu sakelako telefonora, hau dioena: «Zure espedientea izapidetu da». Espedientearen ebazpena aldekoa izateak ekarriko du Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzea eta baimen(ar)en balioa berritzea. Sustapen Ministerioaren web orrian Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroan kontsulta publikoa eginda kontsultatu ahal izango duzu baimenen balioa, helbide honen bidez:

<https://www.fomento.gob.es/REAT/>

OHAR GARRANTZITSUA: DAGOKIZUN HILABETEAREN LEHEN EGUNETIK AZKEN EGUNERA BAINO EZIN IZANGO DUZU BISATUAREN IZAPIDETZEA BERRETSI.

HILABETE HORREN BARRUAN ADOS ZAUELA ADIERAZTEN EZ BADUZU, ULERTUKO DA ATZERA EGIN DUZULA BAIMENEN BISATUAREN PROZEDURAN, ETA ZURE BAIMENAK BALIORIK GABE GERATUKO DIRA HURRENGO HILABETEA AMAITZEN DENEAN.